# DONEJAKUE BIDEA EUSKADIN
## EL CAMINO DE SANTIAGO EN EUSKADI




## GOMENDIOAK
## RECOMENDACIONES

Planifikatu hurrengo eguneko etapa: Erromesen aterpe asko udan bakarrik irekitzen dituzte

Komeni da Bidea bakarrik ez egitea.

Ez ahaztu dokumentazioa, kredentziala eta dirua –edo kreditu-txartela–, eta kontu handia izan baliozko objektuekin.

Eraman etapa bakoitzerako janari eta edari nahikoa eta larrialdietako botika-kutxa.

Eraman oinetako eta arropa egokiak, eguraldiaren iragarpena kontuan hartuta.

Komeni da mugikorraren bateria ongi beteta eramatea.

Zure segurtasunerako, jarraitu senaile ofizialei. Trazadura diferente bat adierazten duten gezi horirik aurkituz gero, ez jarraitu halakoei.

Errespetatu ingurunea eta gainerako erromesak.

*Planifica la etapa del día siguiente: Muchos albergues de peregrinos sólo abren en verano.*

*Es aconsejable realizar el Camino en compañía.*

*No olvides documentación, credencial y dinero –o tarjeta de crédito- y ten cuidado con los objetos de valor.*

*Lleva comida y bebida suficiente para cada etapa y botiquín de urgencia.*

*Lleva calzado y ropa adecuado teniendo en cuenta la predicción del tiempo.*

*Es aconsejable llevar la batería del móvil bien cargada.*

*Por tu seguridad, sigue la señalización oficial. Si encuentras flechas amarillas que indican un trazado diferente, no las sigas.*

*Respeta el entorno y a los demás peregrinos.*

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Gipuzkoari agur eta kaixo Arabari, bi lurraldeetako paraje ederrenen artean. Ez dira muga asko San Adriango tunela bezain ederrak; tunel hori urak harkaitzean egina da, denboraren poderioz. Tunela zeharkatu eta Erdi Aroko galtzada hartutakoan, beste paisaia bat sortuko zaigu begibistan. Arabako Lautadak ez du inolako zerikusirik Gipuzkoako bailara gorabeheratsuekin. Hemen orografia etxekotuta dago, lehorreko laboreak dira nagusi eta herriak lozorroan bezala egoten dira, lasai-lasai, jauregitxo barroko eta errenazentistak han-hemenka sakabanatuta.

*Gipuzkoa dice adiós; Álava da la bienvenida y ambos territorios visten sus mejores galas. Pocas fronteras hay más bellas que el túnel de San Adrián, una gruta excavada en roca por la acción del agua y del paso del tiempo. Una vez atravesado y enfilada la calzada medieval, se arriba a otro mundo paisajístico. La Llanada Alavesa poco tiene que ver con los voluptuosos valles guipuzcoanos. Aquí la orografía está domesticada, abundan los cultivos de secano y los pueblos dormitan a sus anchas, salpicados de palacetes barrocos y renacentistas.*

22 km 895 m 6h






# Bidezatia / *Tramo*
## ZEGAMA > PORTUZARRA / ALTO DE LA HORCA

DONE JAKUE BIDEA EUSKAL HERRIA

km 0 ····· **ZEGAMA.** Zegamako alde zaharra izango da gure abiapuntu, eta Oria ibaiaren ondoan, Santikurutz baselizaren parean, egokitutako bidexka bati jarraitu behar diogu. Hainbat baserriren eta zentral hidroelektriko zahar baten ondotik igaro ostean, errepidea gurutzatu eta gorantz jarraituko dugu, auzo-bide batetik. Igoeran Elurretako Andra Maria baselizaren eta Sancti Spiritus baselizaren ondotik igaroko gara; azken hori San Adriango igarobide naturaletik oso gertu dago jada.

km 7,8 ····· **SAN ADRIAN.** Tunelaren barruan baseliza bat dago; tunela zeharkatuta galtzadatik jarraitu behar dugu harizti ikusgarri batean barrena, Portuzarra edo Alto de la Horca esaten zaion tokiraino. Puntu horretan Araban sartuko gara.

km 0 ····· ***ZEGAMA.*** *Partimos del casco urbano de Zegama tomando una senda acondicionada junto al río Oria a la altura de la ermita de Gurutze Santua. Tras pasar junto a varios caseríos y una antigua central hidroeléctrica, cruzamos la carretera y seguimos ganando altura por un camino vecinal. En la ascensión pasaremos junto a la ermita de las Nieves y la ermita del Sancti Spiritus, ésta última ya muy cerca del paso natural de San Adrián.*

km 7,8 ····· ***SAN ADRIÁN.*** *Tras pasar el túnel con una ermita en su interior, seguiremos la calzada a lo largo de un hayedo imponente hasta alcanzar Portuzarra o alto de la Horca punto en el que entramos en territorio alavés.*

KMZ

GPX

eu es

# DONEJAKUE BIDEA
# CAMINO DE SANTIAGO

Barrualdeko Bidea **4** El Camino del Interior

## ZEGAMA
## AGURAIN / SALVATIERRA

Km. 22 | 895m. | 6h.

United Nations Educational, Scientific and Cultural Organization

**Routes of Santiago de Compostela:** ***Camino Francés*** **and Routes of Northern Spain** inscribed on the World Heritage List in 1993

EUSKADI BASQUE COUNTRY

## SAN ADRIAN IBILBIDEA
## ITINERARIO SAN ADRIÁN






# EZ GERATU EZAGUTU GABE!
## ¡NO TE LO PIERDAS!



San Adriango tunelean atseden hartzea merezi du, ingurune zoragarria baitu hariztiz inguratuta, Aizkorri-Aratz Parke Naturalaren bihotz-bihotzean. Iraganeko garaien lekuko mutu, kobazuloak bisitariak izan ditu Brontze Arotik gaur arte, etengabe, azken urteotan egin diren arkeologia-azterlanetan frogatuta geratu denez. 2015. urtean Unescok Munduko Ondare izendatu zuen, Donejakuerekin lotutako beste hainbat elementurekin eta Iparraldeko Donejakue Bideekin batera.

*Merece la pena tomarse un descanso en el túnel de San Adrián y su idílico entorno rodeado de hayedos en el corazón del Parque Natural de Aizkorri-Aratz. La cueva, testigo mudo de tiempos pasados, ha recibido visitantes ininterrumpidamente desde la Edad de Bronce hasta la actualidad, tal y como lo atestiguan los estudios arqueológicos que se vienen realizando durante los últimos años. En 2015 ha sido nombrado Patrimonio Mundial por la Unesco junto con otros hitos jacobeos y los Caminos de Santiago del Norte.*



Etaparen amaieran, Agurainen, Erdi Aroko alde zaharraren egiturari oso-osorik eutsi diote, eta monumentu-eraikin interesgarriak ditu; halaber, gastronomia-eskaintza ere askotarikoa da. Klaratarren komentuan eskuz egiten dituzten gozokiak, bereziki, goraipatu nahi ditugu. Hatzak miazkatzeko modukoak!

*En el final de etapa, la villa de Salvatierra-Agurain conserva intacta la estructura de su casco medieval con interesantes edificios monumentales y una variada oferta gastronómica. Merecen una mención especial los dulces que realizan las hermanas del Convento de las Clarisas de modo artesanal. ¡Para chuparse los dedos!*



Zalduondon gaudelarik, igandearekin, Lazarragatarren jauregian dagoen Museo Etnografikoa ezagutzea komeni da, eremu horretako kultura-ondarearen eta historiaren erakusgarria eskaintzen baitigu.

*Si pasamos por Zalduondo en domingo, no podemos dejar de visitar el museo etnográfico situado en el palacio de Lazarraga con una muestra de la historia y patrimonio cultural de la zona.*

## TELEFONO INTERESGARRIAK
## TELÉFONOS DE INTERÉS

| | |
|---|---|
| Anduetza Parketxea (Aizkorri-Aratz natura parkearen zentroa)<br>*Parketxe Anduetza (Centro del parque natural Aizkorri-Aratz)* | 943 802 187 |
| Arabako Lautadako turismo bulegoa (Agurain)<br>*Oficina de turismo de la Llanada Alavesa (Salvatierra)* | 945 302 931 |
| Zalduondoko etnografia-museoa (igandetan irekita)<br>*Museo etnográfico de Zalduondo (domingos abierto)* | 945 304 393 |
| Donejakue bideen lagunen elkartea (Gipuzkoa)<br>*Asociación de Amigos del Camino de Santiago (Gipuzkoa)* | 943 427 281 |
| Donejakue bideen lagunen elkartea (Araba)<br>*Asociación de Amigos del Camino de Santiago (Álava)* | 945 144 794<br>609 472 446 |
| Larrialdiak<br>*Emergencias* | 112 SOS DEIAK |

# Bidezatia / *Tramo*
# PORTUZARRA / ALTO DE LA HORCA > AGURAIN / SALVATIERRA

km 9 **PORTUZARRA.** Bidegurutze hori igaro dugularik, galtzadatik aurrera jarraituko dugu, baina oraingoan beherantz, Zumarraundira eramango gaituen pistaraino. Handik gutxira, pista utzi eta berriro ere galtzadan sartuko gara metro gutxi batzuk egiteko, baina berriz pistan sartu beharko dugu Araiako bidegurutzera iritsi baino lehen. Eskuinetara joko dugu Zalduondorantz eta, iritsi aurretik, ezkerretara Aistrako San Julian eta Santa Basilisa baseliza ikusiko dugu; Arabako zaharrenetako bat da, X. eta XI. mendeetakoa.

km 16,3 **ZALDUONDO.** Zalduondotik abiatuta, errepidetik jarraitu behar da, kontu handiz, hegoalderantz. Erdoñako etxeetaraino iritsi aurretik, gure eskuinaldean San Millan baseliza ikusiko dugu. Errepidetik jarraituta, San Lazaro antzinako ospitaleak egingo digu ongietorria Agurain herrira.

km 9 ***ALTO DE LA HORCA.*** *Pasado este cruce de caminos seguimos por la calzada ya perdiendo altura hasta alcanzar la pista que conduce a Zumarraundi. Poco después dejamos la pista para retomar la calzada unos metros hasta alcanzar de nuevo la pista antes del cruce de Araia. Seguimos a la derecha en dirección a Zalduondo y, antes de alcanzarlo, encontramos a la izquierda la ermita de San Julian y Santa Basilisa de Aistra, una de las más antiguas de Álava datada entre los siglos X y XI.*

km 16,3 ***ZALDUONDO.*** *Desde Zalduondo se continúa por la carretera extremando la precaución en dirección sur. Antes de alcanzar las casas de Ordoñana a nuestra derecha queda la ermita de San Millán. Siguiendo por la carretera, el antiguo hospital de San Lázaro nos dará la bienvenida a la villa de Salvatierra-Agurain.*

# KONTUAN HARTU BEHARREKOAK
## A TENER EN CUENTA

• Etapa hau mendian barrena egiten denez, batik bat, neguko hilabeteetan edo eguraldi txarra (elurra edo lainoa) dagoenean kontu handiz ibili behar da, gutxi ikusten delako, eta beraz, zaila izan daitekeelako orientatzea.

• *Al discurrir esta etapa por un entorno de montaña, es necesario extremar la precaución especialmente durante los meses de invierno o con condiciones meteorológicas adversas (nieve o niebla) ya que con poca visibilidad, la orientación puede resultar dificultosa.*

• Ibilbide osoan iturri gutxi izango ditugu. Tunela igaro ostean, 400 bat metrotara, hariztiaren hasieran Eskaratxako iturria dago; komeni da topatzea. Bidegurutze batean dago, nahiko ezkutuan, galtzadaren ezkerreko aldean.

• *Encontraremos escasas fuentes a lo largo del recorrido. Es importante que no nos pase inadvertida la fuente de Eskaratxa una vez pasado el túnel, a unos 400m de éste al principio del hayedo. Se encuentra en un cruce de caminos algo escondida a la izquierda de la calzada.*

• Zalduondotik Agurainera bitarteko tartea errepidez egin behar da, eta ez du bazterbiderik. Ez da trafiko handirik ibiltzen, baina hala ere, kontu handiz ibiltzea komeni da.

• *El tramo entre Zalduondo y Salvatierra-Agurain se realiza por carretera sin arcén. Si bien no soporta mucho tráfico, conviene extremar la precaución.*

• Aurreikusitakoaren arabera Zalduondoko erromesen aterpetxea 2017. urtean irekiko da.

• *La apertura del albergue de peregrinos de Zalduondo está prevista para el año 2017.*

www.euskaditurismo.eus

